



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

BIZKAIKO ABOKATUEN ELKARGOAREN ESTATUTUEI BURUZKO TXOSTENA

LEA/AVC 294-ARAU-2018 espedientea

Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	2
II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK	3
1. LEAren eskumena.....	3
2. Elkargo profesionalen araudia	3
3. Bizkaiko Abokatuen Elkargoa	5
III. LEHIAREN ARAUDIARI BURUZKO HAUSNARKETAK.....	5
1. Elkargokide izatea.....	5
A. Elkargora nahitaez bildu beharra	5
B. Elkargoan sartzeko baldintzak:	8
C. Europar Batasuneko beste estatu batzuetako pertsonak abokatutzan aritzea	9
2. Ordainsari profesionalak	10
3. Elkargoaren baliabideak: Kuotak	14
4. Elkargoaren erreakzioa lanbideko intrusismoa eta lehia desleialeko kasuetan..	15
5. Elkargoak elkargokideei lehia egitea.....	16
6. Elkargoa eta abokatuak lehiaren arloko araudiaren mende egotea	17
IV. ONDORIOAK:	18

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva, bokala

Enara Venturini Álvarez, bokala

Maria Lourdes Muñoa Corral, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), adierazi bezala osatuta 2018ko uztailaren 9an eginiko bileran, txosten hau eman du Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren Estatutuen inguruan.



I. AURREKARIAK

1. 2018ko apirilaren 13an, Lehiaren Euskal Agintaritzan (LEA) sartu zen Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzaren idazki bat. Bertan eskatzen zen Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren estatutuei buruzko txosten bat emateko. Eskariarekin batera, aldatutako estatutuen kopia bat bidali zuten¹.

2. Elkargoak estatutuak onetsi ditu eta, horrela, Elkargo Profesionalei buruzko Legearen (2/1974) 6. artikuluan (EPL)² eta Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko Legearen (azaroaren 21eko 18/1977) 33. artikuluan (EEL) ezarritakoa bete du³.

Horretarako, Elkargoak, elkargo profesionalak arautzen dituzten lege horiez gainera, honako hauek ere izan ditu kontuan: Zerbitzuetako jardueretarako sarbide libreari eta horiek gauzatzeari buruzko Legea (azaroaren 23ko 17/2009) (Aterki Legea)⁴, Espainiako Abokatzaren Estatutu Orokorra onartzen duen Errege Dekretua (ekainaren 22ko 658/2001)⁵ eta 2013ko ekainaren 12ko Espainiako Abokatuen Kontseilu Nagusiaren osoko bilkurak onetsitako Abokatuen Estatutu Orokor berria.

Hala ere, Elkargoak berak Estatutuen zion azalpenean adierazi bezala, 2013ko ekainaren 12an Espainiako Abokatuen Kontseilu Nagusiaren osoko bilkurak onetsitako Abokatuen Estatutu Orokorra ez dago indarrean⁶.

¹Estatutuek zioen azalpena dute eta zazpi kapitulutan banatzen eta antolatzen dira: I. titulua, Elkargoa; II. Titulua, Elkargoko kideak; III. Titulua, Elkargoaren gobernua; IV. Titulua, Elkargoaren erregimen ekonomikoa eta administrazioa; V. Titulua, Elkargoaren egintzen erregimen juridikoa eta aurkaratzea; VI. Titulua, Estatutuen erreforma; VII. Titulua, Elkargoaren izen aldaketa, bat-egitea, banantzea, desegitea eta likidazioa. Era berean, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, azken xedapen bat eta xedapen indargabetzaile bat dute.

Estatu-mailako legea. 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, Elkargo Profesionalei buruzkoa. 1974ko otsailaren 15eko BOE, 40. zk.

³18/1997 Legea, azaroaren 21ekoa, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzkoa. 1997ko abenduaren 11ko EHAA, 237. zk.

⁴ 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzkoa. 2009ko azaroaren 24ko BOE, 283. zk.

⁵658/2001 Errege Dekretua, ekainaren 22koa, Espainiako Abokatzaren Estatutu Orokorra onartzen duena. 2001eko uztailaren 10eko BOE, 164. zk.

⁶Elkargo Profesionalei buruzko Legearen 6.2. artikulua honako hau xedatzen du: Kontseilu Nagusiek lanbide bereko elkargoei entzun eta gero, guztientzako baliagarriak izango diren estatutu batzuk sortuko ditu, eta horiek Gobernuaren onspenaren mende egongo dira eskumena duen ministerioaren bitartez.



II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK

1. LEAren eskumena

3. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legeak 3.3 eta 10.n artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko eman dizkion eskumenek hala baimenduta egin dugu txosten hau⁷. Funtzio horren xedea da Euskadiko merkatuetan benetako lehia sustatzea, kontsulta-izaerako ebazpenen eta zehapenekoak ez diren ebazpenen bidez; ebazpen horien artean, nabarmentzekoak dira administrazio publikoei dagozkienak.

4. Bizkaiko Abokatuen Elkargoko (Elkargo) estatutuen azterketan bi gomendio mota egingo dira: balizko arau-hausteei buruzkoak, alde batetik, eta, lehiari kalte gutxiago eragiteari buruzkoak, bestetik, estatutuetan jasotakoak, legeriaren kontrakoa guztiz izan ez arren, lehiari eragina duelako. Azken kasu horretan, interes publikoarentzat onuragarriagoak diren alternatibak proposatuko dira.

5. Txosten hau egituratzeko, kategoria materialak hartu ditugu kontuan; hau da, ez diogu jarraitu artikuluen ordenari. Hala ere, argiagoa izan dadin, oinarritzko arauen testuak aipatu ditugu epigrafe bakoitzean, eta adierazi dugu Estatutuetako zer manamendutan duten eragina eta zer iritzi dugun.

2. Elkargo profesionalen araudia

6. Gure antolamendu juridikoak, elkargo profesionali buruz arautzen duenak, oinarri konstituzionala dauka. Hain zuzen ere, hau ezartzen du EKren 36. artikulua: «Legeak elkargo profesionalen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jardura arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan beharko dute».

7. Elkargodun lanbideak lehia askearen araubidean egin behar dira, eta guztiz aplikatu behar zaie Lehiaren Defentsarako Legea (LDL)⁸.

8. Estatuko eta autonomietako araudia Europar Batasuneko zerbitzuen zuzentarauaren aurrekoa da: EPL eta EEL legeez gain, Zuzentarauaren transposizioa egiterakoan Estatuan nahiz autonomia-erkidegoetan betearazteko

⁷ 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa. 2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.

⁸ EPLren 2.1. artikulua.



hainbat arau daudenez, aldaketa handiak egon dira elkargo profesionalen funtzionamenduaren araubidean. Kontuan hartzekoak dira, bereziki, Aterki Legea, Omnibus Legea edota EAEko 7/2012 Legea⁹.

9. EELren xedea honako hau da: «Tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarritzko legerian edota arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da». Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak soilik dituen eskumenak erabiliz egindakoa da araudia, Espainiako Konstituzioaren 139. artikuluari kalte egin gabe, betiere. Hain zuzen ere, zera xedatzen da artikuluko horretan: «Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea».

10. Hori dela eta, elkargoak EELn ezarritakoari jarraitu behar dio, Europar Batasunaren araudira egokitzeko 2012an egindako aldaketen ondoren indarrean dagoen testuari, hain zuzen. Arau horren bederatzigarren xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraituz, «elkargo profesionalen araubidearen oinarriak arautzen dituzten manamenduak bere osotasunean edo zati batean jasotzen dituzten lege honetako atalak legegintza-sistematikari jarraitzeagatik sartu dira testu honetan. Horren ondorioz, atal horiek ere aldatutzat joko dira agindu haiek aipatu den oinarritzko araudian birmoldatzen diren unean».

11. Elkargoek lehiari buruzko arautegia bete beharko dute, bai estatutuak eta elkargoko beste arau batzuk idaztean (hala nola barne-araubideko erregelamenduak, ezarritako prozedurak, eta arau deontologikoak), bai eta jardunean aritzean ere. Hori dela eta, estatutuen testua kontuan izan gabe, elkargoek ezin dute hartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, ezta horrelako betebeharrak edo eskakizunik ere, lehia defendatzeko legediaren arau-haustea izan daitezkeelako.

2006/123/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Barne Merkatuko Zerbitzuei buruzkoa, Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L 376/36, 2006ko abenduaren 27koa.

Azaroaren 23ko 17/2009 Legea (Zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa), Aterki Lege deitua (2009ko azaroaren 24ko BOE, 283. zk.); abenduaren 22ko 25/2009 Legea, zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitzeko zenbait lege aldatzen dituena, Omnibus Lege deitua (2009ko abenduaren 23ko BOE, 308 zk.); eta Eusko Legebiltzarraren 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko zuzentara egokitze aldera zenbait lege aldatzen dituena, eta tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 euskal Legea aldatzen duena (2012ko apirileko 30eko EHAA, 84. zk.).



12. Zentzu horretan, indarrean dagoen Espainiako Abokatutzaren Estatutu Nagusiak ezartzen du interes publikoko zerbitzu bat ematen duen lanbide libre eta independentea dela abokatutza, eta lehia askearen eta leialaren araubidean egiten dela.

3. Bizkaiko Abokatuen Elkargoa

13. Elkargoa izaera juridiko propioa duen zuzenbide publikoko korporazio bat da. Bizkaiko abokatu-lanbidearen ordezkartza- eta defentsa-eginkizunak ditu.

14. 1947an onetsitako estatutuek arautzen dute¹⁰.

15. Gaur egun, Bilboko Abokatuen Elkargoa izena du, eta estatutuak aldatu ondoren, Bizkaiko Abokatuen Elkargoa izena hartuko du.

16. www.abogacia.es web-orrialdean ageri den erroldaren arabera (Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak kudeatzen du), 2017ko abenduaren 31n, Elkargoak 4.973 abokatu kide ditu, eta horietatik 3.456 jarduneko abokatu egoiliarak dira, 79 jarduneko ez-egoiliarak eta 1.438 ez-jardunekoak.

III. LEHIAREN ARAUDIARI BURUZKO HAUSNARKETAK

1. Elkargokide izatea

A. Elkargora nahitaez bildu beharra

17. Konstituzio Auzitegiak Espainiako Konstituzioaren 36. artikulua, Elkargoei buruzko arauketa konstituzionala jasotzen duenak, interpretatu eta honako hau ezarri du: «Elkargo bateko kide izan beharra konstituzionalki zilegi izango da, interes publiko bati zerbitzua emateko beharragatik justifikatuta dagoenean». Horrenbestez, Konstituzio Auzitegiak legegilea gaitzen du, hark, egokitzat jotzen duenean, elkargo profesionaletara biltzeko askatasuna eta lanbidea aukeratzeko askatasuna mugatu ditzan –bereziki elkargoko kide egitera behartuz–, betiere lanbide jakin batzuekin loturiko interes publikoek hala justifikatzen dutenean.

18. Aterki Legeak, hau da, zerbitzuei buruzko Zuzentaraua aldatzen duenak, elkargoko kide egin beharra baimentzen du, salbuespen gisa, honako kasu hauetan:

¹⁰ Bilboko Abokatuen Elkargoaren Estatutuak, 1947ko abenduaren 28koak. <http://www.icasv-bilbao.com/images/normativa/EstatutoColegio1947.pdf>.



- Ordena publikoko, segurtasun publikoko, osasun publikoko edo ingurumenaren babeseko arrazoiak direla-eta justifikatuta dagoenean (12. artikulua).
- Eskakizuna ez denean diskriminatzailea, ez zuzenean, ez zeharka, eskumena duen agintaritzaren kokapenaren edo nazionalitatearen arabera (5. artikulua).
- Beharrezkoa denean; hau da, interes orokorreko premiazko neurriren batek justifikatzen duenean (5. artikulua).
- Lortu nahi den helburua lortzeko egokia denean; hau da, nahi den helburua lortu ahal izateko elkargo bateko kide egitea tresnarik onena denean, eta, beraz, emaitza bera lortzea ahalbidetuko duen neurri hoberik ez dagoenean (5. artikulua).
- Araubide hori zehazten duen Legean behar bezala arrazoitzen denean (5. artikulua).

19. EAEn, lanbide batean jarduteko elkargo bateko kide izatea eskatzeko aukera hori EELaren 30.1 artikulua arautzen du. Xedapen horrek hau ezartzen du: «Elkargoetako lanbideetan jarduteko ezinbesteko baldintza da dagokion elkargoko kidea izatea, dagokion legeak horrela jasotzen duenean». Horrenbestez, elkargo bateko kide izateko obligaziozkotasuna lege-mailako arauen batean jasotzen denean bakarrik jo ahal izango da zuzenbidearen arabera kotzat.

20. Gainera, elkargoko kide egin beharra lege-mailako arauen batean jaso beharko da, hark LDLren 4. artikulua babesa izango badu¹¹.

21. Oro har, Omnibus Legeak lanbidera sartzeko eta lanbide batean jarduteko murrizketak ezabatu zituen, baina etorkizuneko araudi baten esku utzi zuen jardueraren erreserben eta elkargo bateko kide izateko beharraren erreforma. Une honetan, eta EPLren 3.2 artikulua arabera, Estatuko lege batek hala ezartzen duenean soilik eskatu ahal izango da elkargo bateko kide izateko lanbide batean jarduteko. Dena dela, elkargo bateko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak lege arautzen ez diren bitartean, eta Omnibus Legearen laugarren xedapen iragankorrari jarraituz, hura indarrean jarri zen unean nahitaezko zirenak finkatu dira. Horregatik, aldi baterako, lehendik zeuden elkargoko kide izatea beharrezkoa den egoeren legezkotasuna mantendu da, maila egokia ez duten arauak ezarrita egon arren.

22. Abokatuek elkargoko kide izan behar dute derrigor epaitegien eta auzitegien aurrean jardun ahal izateko, non eta ez diharduten administrazio edo erakunde publikoen zerbitzuan, funtzionario gisa edo lan-harreman bidez¹².

¹¹ EPLren 3.2. artikulua ezartzen du ezinbestean egon behar dela dagokion Elkargo Profesionalean kidetuta lanbideetan jarduteko estatu-mailako lege batek hala ezartzen duenean.

¹² EPLren 3.2 artikulua lanbideak betetzeko ezinbesteko eskakizuntzat ezartzen du dagokion elkargo profesionalaren barruan egotea, estatuko lege batek hala eskatzen duenean. Abokatuen kasuan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 544.2 artikulua ezartzen du derrigorrez egon beharko direla kidetuta epaitegien eta auzitegien aurrean jardun ahal izateko. 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, Botere Judizialarena. 1985eko uztailaren 2ko BOE, 157. zk.



Nahikoa izango da Elkargo bakar batean izena ematearekin, eta elkargoaren helbidea izango da lanbide-helbide bakarra edo nagusia, eta kideak Estatuko lurralde osoan jardun ahal izango du.

23. Estatutuek arautzen dute elkargora nahitaez bildu beharra.

18. artikulua. Nahitaezko kidetzea.

1. Abokatu gisa jarduteko gaikuntza izatea eta helbide profesionala Elkargo bakar edo nagusi batera biltzea ezinbesteko baldintza izango dira Abokatutzan jarduteko.
2. Helbide profesional nagusitzat hartuko da abokatuak bere jardunean gehien erabiltzen duen bulegoa, lan egin dezakeen gainerako egoitza, bulego edo kokapenen aldean; halakorik egongo ez balitz, bere jarduera profesionalaren kudeaketa administratiboa eta bere jarduera profesionala zentralizatzen dituen tokia hautatuko da.
3. Elkargoko kide egiteak Estatuko lurralde osoan aritzeko gaitzen du.
4. Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuan honela sar daiteke:
 - a) Abokatu egoiliar gisa. Helbide profesionala Elkargoaren lurralde-esparruan duen Elkargoko jarduneko kidea da.
 - b) Abokatu ez-egoiliar gisa. Helbide profesionala beste Elkargo baten lurralde-esparruan duen eta han kide nagusi egin den Elkargoko jarduneko kidea da.
 - c) Jardunean ez den Elkargoko kide gisa. Abokatutzaren jardun profesionalean ez diharduen Elkargoko kidea da; ez du abokatu izendatzeko eskubiderik.
 - d) «Izena emandako abokatu» gisa. Europako eta nazioko legeriaren arabera, Espainian beren jatorriko herrialdeko tituluarekin jardun dezaketenak dira.

24. Elkargoko kide egiteko hainbat modu daude: abokatu egoiliar edo ez egoiliar gisa, baita jarduneko edo jarduten ez den abokatu gisa ere. Horren inguruan azpimarratu behar da EELren 38. artikulua ezartzen duela kideak jardunekoak edo jarduten ez direnak izango direla, eta ezin dela beste kide motarik egon.

Horregatik, beren egoitzaren arabera kideen sailkapena ezabatzea gomendatzen da.

25. Egun, abokatuen lanbidean jarduteko nahitaezkoa da Elkargoko kide egitea, eta horrek mugatu egiten ditu bai lehia bai lanbidean askatasunez aritzea; azken batean, Espainiako Konstituzioaren 35.1 artikuluan (EE) aitortzen den lan egiteko eskubidea urratzen du. Mugatze horiek oinarri bakarra izan dezakete: interes publikoa eta ondasun juridikoak babesteko arrazoi sendoak izatea, nahitaez elkargoko kide

Gainera, Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra onartzen duen ekainaren 22ko 658/2001 Errege Dekretuak 11. artikuluan ezartzen du abokatutzan jarduteko derrigorrezkoa dela Abokatuen Elkargo batean kidetuta egotea, Legeak edo Abokatutzaren Estatutu Orokorrek espresuki aipatzen dituzten kasuetan salbu.



egiteko beharra duen lanbidean askatasunez aritzea baino sendoagoak direnak. Dena den, mugatze hori behar besteko maila duen legezko arau batek babesten du.

B. Elkargoan sartzeko baldintzak:

26. EELren 5.1 artikulua baldintza hauek ezartzen ditu lanbide-jardura gauzatzeko:

- a) Dagokion tituluaren jabe izatea, lege honetako 2.1. artikuluan xedatutakoarekin bat.
- b) Ez egotea desgaiakuntza profesionaleko egoeran.
- c) Legeek ezarritako bateraezintasun edo debeku kasuren batean ez egotea.
- d) Elkargoko kidea izateko arauak, halakorik bada, betetzea.

2. Soilik legeak hala araututa, aurreko baldintzez bestelako baldintzak ezarri ahal izango dira.

27. Estatutuek honako baldintza hauek ezartzen dituzte Elkargokoan sartzeko:

19. artikulua.- Elkargoko kide egiteko baldintzak.

1. Abokatuen Elkargoan egoiliarren modalitatean sartzeari erabakitzen duen pertsonak baldintza hauek bete beharko ditu: · (.....)

h) Abokatutzan aritzeko ezintasunaren, bateraezintasunaren edo debekuaren kausan sartuta ez egotea; Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak jaulkitako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da alderdi hori. (....)

25. artikulua. Abokatutzan aritzeko ezgaitasuna.

1. Abokatutzan aritzeko ezgaitasuna eragiten duten arrazoiak dira:

- a) Beren izaera edo intentsitatea dela-eta, abokatuei agintzen zaien defentsa- eta aholkularitza-eginkizuna betetzen uzten ez dieten eragozpenak.
- b) Ebazpen judizialaren arabera abokatutzan aritzeko desgaiakuntza edo etendura.
- c) Jardun profesionalaren etendura edo abokatutzaren edozein elkargotatik kanporatzea dakarten diziplina-zehapen irmoak.

d) Oro har, 19.1 artikuluan abokatutzan aritzeko ezarritako baldintzaren bat betetzeari uztea. Kasu horretan, elkargokideak hamabost eguneko epean jakinaraziko du, nahiz eta jarduna eragozten duen egintza gertatu bezain laster utzi beharko dion dagozkion funtzioak betetzeari. Gainera, jakinarazpena ez egitea ez da Elkargoak jarduteko oztopo izango, baldin eta beste edozein bidetik izan badu ezgaitasun-arrazoiaren berri.

2. Aurreko edozein arrazoiaren ondoriozko ezgaitasunak automatikoki ekarriko du abokatua ez-jardule izatera igarotzea. Ezgaitasuna desagertu egingo da eragin duen arrazoiaren amaitzen denean.

3. Abokatutzaren edozein elkargotatik kanporatzea dakarren diziplina-zehapena izan duenean, ezgaitasuna ez da desagertuko harik eta kanporatzeko zehapena ezarri zuen elkargoaren estatutuetan edo, halakorik ezean, Abokatutzaren Estatu Orokorrean edo estatutu hauetan aurreikusitako terminoetan abokatua birgaitzen ez duten arte.

26. artikulua. Bateraezintasunak.

1. Abokatutzan aritzea bateraezina da honako hauekin:



- a) Botere judizialaren, estatuko, autonomia-erkidegoko edo tokiko administrazioen eta horien mende edo horiei loturik dauden zuzenbide publikoko erakundeen zerbitzurako karguak, funtzioak edo enpleguak edozein kontzeptutan betetzearekin, baldin eta haien araudi erregulatuak hala ezartzen badu.
 - b) Kontu-ikuskapeneko jarduerarekin legez aurreikusitako terminoetan.
 - c) Lege-mailako arauak bateraezintzat jotzen duten beste edozein jarduerarekin.
2. Pertsona jarduleek ezin izango dute izaera profesionaleko elkarte-loturarik izan aurreko zenbakian aipatutako bateraezintasunak dituzten pertsonekin. Lokal, zerbitzu eta jarduerarik ere ezin izango dute partekatu haiekin, sekretu profesionalaren eginbidea arriskuan jar daitekeenean.
3. Bateraezintasun-arrazoien bat duen pertsona jarduleak berehala utzi beharko dio lanbidean aritzeari eta jardule gisako baja formalizatu beharko du, gehienez ere, hamabost eguneko epean, gobernu-batzarrari zuzendutako jakinarazpenaren bidez. Hala egiten ez badu, gobernu-batzarrak kautelaz eten dezake haren jardun profesionala, eta ez-jarduletzat joko du automatikoki, dagokion diziplina-espedita hasteko erabakia hartzen duenaldi berean.

28. Estatutuek abokatutzan jardutea eragozten duten edo abokatutzan aritzearekin bateraezinak diren kasuak ezartzen dituzte. Halakoek abokatuak emandako zerbitzuen merkatura sartzeko lehia murrizten dute, eta EELk legearentzat gorde du horien zehaztapena.

Horiek horrela, sarbide-mugak edo lanbide-jardunarekiko bateraezintasunen edo debekuen araubidea arautzean, Legea igorritz soilik arautu ditzala eskatzen zaio Elkargoari.

C. Europar Batasuneko beste estatu batzuetako pertsonak abokatutzan aritzea

29. Manu honetan arautzen dute Estatutuek:

- 23. artikulua. Europar Batasuneko beste estatu batzuetako pertsonak abokatutzan aritzea.**
1. Europar Batasuneko eta Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batzuetako elkargokideak, jarduera profesionala Espainian egikaritu nahi dutenak, modu iraunkorren eta jatorrizko lanbide-tituluarekin, Bizkaiko Abokatu Elkargo Ohoretsuan sartu ahal izango dira «izena emandako abokatu» izendapenarekin.
 2. «Izena emanda» aritzen direnak estatutu hauetan orokorrean aurreikusitako egikaritze-modalitateen arabera aritu ahal izango dira lanbidean, indarrean dagoen araudian ezarritako mugekin.
 3. Abokatu bisitariak eta «izena emandako» pertsonen izendapena duten kideek Espainiako elkargoren bateko kide den abokatu batekin itunduta jardun beharko dute bezeroak defendatu nahi dituzten gaietan, Espainiako legeriaren arabera, nahitaezkoa denean haiek esku hartzea epaitegi edo auzitegien edo jurisdikzio-funtzioak dituzten erakunde publikoen aurreko jarduketetarako; eta, era berean, figura profesional horren esku-hartzea nahitaezkoa ez duten



gaietan, legeak galdatzen duenean interesdunak bere kabuz esku hartzen ez badu abokatu baten bidez besterik ezin duela egin; eta, orobat, atxilotuei eta presoek laguntza eman behar zaienean, haiekin komunikatu behar denean eta bisitak egin behar direnean.

4. Abokatu bisitaria aurkeztu zaion dekanotzari dagokion abokatuen elkargoari edo «izena emandako» jarduneko abokatu erregistratuta dagoenari jakinarazi behar zaio ituna, bi profesionalek sinatutako idazkiaren bitartez. Halaber, itun horren existentzia eraginpean hartzen dituen jarduketa profesional guztietan jasoarazi beharko da.

5. Itunak abokatu elkargokidea behartzen du jarduketa profesionaletan «izena emandako» abokatuarekin edo bisitariarekin joatera eta hari laguntzera.

30. Europar Batasuneko beste estatu batzuetako abokatu «bisitariak» lanbidean jardutea jada erregulatuta dago barne-zuzenbidean; zehazki, abokatuen zerbitzu-prestazio askearen jardun eraginkorra ahalbidetzera zuzendutako Europako Erkidegoetako Kontseiluaren 1977ko martxoaren 22ko Zuzentaraua garatzen duen martxoaren 21eko 607/1986 Errege Dekretuan¹³. Era berean, Europar Batasuneko abokatuak beren jarduna «era iraunkorrean» egitea araututa dago Europar Batasuneko beste estatu batean erdietsitako titulu profesionala duen abokatuaren jardun iraunkorra arautzen duen abuztuaren 3ko 936/2001 Errege Dekretuan¹⁴.

31. Gai hori 2003ko urtarrilaren 12an onartutako Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorrak ere jorratu du. Dena den, ez dago indarrean Gobernuak ez duelako onartu, txosten honetako 2. zenbakian adierazi bezala.

2. Ordainsari profesionalak

32. Omnibus legeak ezabatu egin zuen EPLren 5. artikulua elkargo profesionalei esleitzen zien funtzio hura –ordainsari orientagarriak ezartzea, hain zuzen–, eta berariaz debekatu zuen halakorik egitea, 14. artikuluan.

33. EPLren xedapen gehigarrian dator salbuespen bakarra, zeinak aukera ematen baitu elkargo profesionalek «irizpide orientagarriak» (ez baremoak) prestatzea, kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko besterik ez. Irizpide horietan baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostuak tasatu ahal izateko.

¹³ Abokatuen zerbitzu-prestazio askearen jardun eraginkorra ahalbidetzera zuzendutako Europako Erkidegoetako Kontseiluaren 1977ko martxoaren 22ko Zuzentaraua garatzen duen martxoaren 21eko 607/1986 Errege Dekretua. 1986ko apirilaren 1eko BOE, 78. zk.

¹⁴ Europar Batasuneko beste estatu batean erdietsitako titulu profesionala duen abokatuaren jardun iraunkorra arautzen duen abuztuaren 3ko 936/2001 Errege Dekretua. 2001eko abuztuaren 4ko BOE, 186. zk.



34. Estatutuek jarraian datozen artikuluetan arautzen dituzte profesionalen zerbitzu-sariak eta kostuak tasatzeko «irizpide orientagarriak».

4. artikulua. Elkargoaren funtzioak.

(....)

l) Ordainsarien irizpide orientagarriak ezartzea, kostuen tasazioaren eta abokatuaren kontuen zinareneko ondorio eskusiboetarako. Irizpide horiek baliozkoak izango dira, era berean, doako laguntza juridikoan kostuen tasazioaren ondorioetarako dagozkion ordainsariak kalkulatzeko. Horrez gain, ordainsari profesionalari buruzko txostenak eta irizpenak ematea, are perituxostenak jaulkitzea ere, ordainsari profesionalari buruzko gaiak eztabaidatzen diren prozesu judizialean. (...)

32. artikulua. Ordainsari profesionalak.

1. Abokatuak eskubidea du egindako zerbitzuen ondorioz konpentsazio ekonomiko egokia jasotzeko eta eragin dizkieten gastuen ordaina hartzeko.

2. Ordainsarien zenbatekoa eta horiek ordaintzeko modu finkoa, aldian behingoa, ordukakoa edo beste edozein, askatasunez hitzartuko dute bezeroak eta profesionalak.

3. Abokatuak, horretarako behar diren datuak eduki bezain laster, bezeroari eman beharko dio bere jarduketa profesionalari dagozkion ordainsariei eta horien kuantifikazioa zehazteko erabili nahi dituen irizpideei buruzko informazioa.

4. Komenigarritzat jotzen da, betiere, bezeroari abokatuaren esku-hartze profesionalari dagokion aurrekontua entregatzea, bezeroak ere sinatuko duen enkargu-orri baten bitartez.

5. Enkargu-orria edo ordainsarien aurrekontua entregatzea nahitaezkoa izango da bezeroak hala eskatzen duenean.

6. Enkargu-orrian idatziz jasoko dira inguruabar hauek:

a) Enkarguaren xedea.

b) Enkarguan berariaz sartzen diren jarduketa zehatzen xehetasuna.

c) Hala badagokio, aurrekontuak ez diren baina zeregin profesionalean egin litezkeen jarduketaren aipamena.

d) Ordainsari profesionalak zehazteko kontuan hartuko diren irizpideak eta, ahal den neurrian, haien kuantifikazio zehatza. Gaiaren ezaugarriak direla-eta, ordainsarien zenbateko zehatza finkatu ezin dela irizten zaionean, inguruabar hori idatziz jasoko da eta, betiere, zenbateko hori zehazteko erabiliko diren oinarriak adieraziko dira.

e) Ordejarritako gastu gisa edo beste inguruabar batzuen ondorioz beharko diren eta aurreko

d) letran aipatutako prezioan sartzen ez diren kopuruak.

f) Noiz den bidezkoa edozein kopuru ordaintzea.

g) Hala badagokio, aurrekontua enkargua gauzatu bitartean egon daitezkeen aldaketen mende dagoela aipatzea. Aldaketa horiek, era berean, bezeroak onartu beharko ditu.

7. Ordainsariak eskuratzeko, haiek zehazteko garrantzizko elementu guztiak behar bezalako xehetasunarekin jasoko dituen minuta edo faktura jaulki beharko du abokatuak.

8. Enkargu-orririk edo berariazko bestelako itunik edo gutxi gorabeherako aurrekonturik ezean, abokatuak eskubidea izango du enkargua betetzeko hedatutako jarduerari dagozkion



ordainsariak jasotzeko. Horretarako, legeak haiek erreklamatzeko ezartzen dituen akzioak egikaritu ahal izango ditu.

9. Elkargoak ez du izango atal honetan eta hurrengoan berariaz aurreikusitakoaz bestelako esku-hartzerik bezeroak abokatuari zor dizkion ordainsariak zehazteko. Elkargoak ezin izango du ezarri ordainsari profesionalari buruzko baremorik, ezta tarifarik edo beste orientaziorik, gomendiorik, gidalerrorik, arau edo erregelarik ere. Elkargoak ez du kontsultarik onartuko, ez enkargu profesionalaren aurrekorik ez ondorengorik, ordainsari profesionalak zehazteko edo ordainsari jakin batzuk gehiegizkoak edo egokiak iruditzen zaizkion adierazteko. Ordainsari profesionalen arloko ezadostasunak judizioz kanpo ebaztearren, Elkargoak bitartekotza- edo arbitraje-prozeduren bitartez besterik ezin izango du esku hartu. Prozedura horiek aldeek ituntzen dituzten terminoetan lotuko dituzte aldeak.

10. Elkargoak txostena eman beharko du, soilik errekerimendu judiziala egiten zaionean, bai ofizioz bai alderdi batek eskatuta, ordainsari profesionalak eztabaidatzen diren prozesuetan, peritu-irizpena emateko legez gaitutako korporazioa den aldetik eta prozesu-legeek ezarritako terminoetan.

33. artikulua. Kostuen tasazioetarako irizpide orientagarriak.

1. Elkargoak irizpide orientagarriak landu ahal izango ditu edo Legelarien Euskal Kontseiluari lantzeko proposatu ahal izango dio, abokatuen kostuen tasazioaren ondorio eskusiboetarako. Irizpide horiek baliozkoak izango dira, era berean, kontuen zinetan aintzat hartutako prozesu-jardunetarako eta doako laguntza juridikoan kostuen tasazioaren ondorioetarako dagozkion ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko.

2. Gobernu Batzarrak onartzen dituen irizpide orientagarriak eta horiek Kostuen Tasazioen Atalak proposatuta onartutako txostenetan aplikatzea publikoak izango dira. Gobernu Batzarrak dagokion argitalpen-bidea arbitratuko du, ezagutzera emateko eta, batez ere, segurtasun juridikoari begira.

3. Elkargoak, errekerimendu judiziala egiten zaionean, txosten orientagarria emango du kostuen tasaziorako eta kontuen zinerako prozeduretan, prozesu-legeek ezarritako terminoetan.

4. Prozesuko kostuen eta kontuen zinaren arloko ezadostasunak judizioz kanpo ebaztearren, Elkargoak bitartekotza- edo arbitraje-prozeduren bitartez esku hartu ahal izango du. Prozedura horiek aldeek ituntzen dituzten terminoetan lotuko dituzte aldeak.

41. artikulua. Gobernu Batzarraren eskudantziak.

Abokatutzaren Estatutu Orokorrak eta indarrean dagoen legeriak ezar ditzaketenez gain, Gobernu Batzarrak eskudantzia hauek ditu:

(...)

o) Txostena ematea, peritu-irizpenaren izaerarekin, errekerimendu judiziala egiten zaionean, bai ofizioz bai alderdi batek eskatuta, ordainsari profesionalak eztabaidatzen diren prozesuetan, estatutu hauen 32.10 artikuluan ezarritako terminoetan. (...)

35. Estatutuek zerbitzu-sariak profesionalaren eta bezeroaren artean era askean ezarri daitezkeela ezartzen du. Horrenbestez, elkargo profesionalak ezin dute laneko ordainsarien inguruko baremorik ezarri, ezta bestelako orientaziorik, gomendiorik, jarraibiderik, araurik edo erregelarik ere.



Gainera, Elkargoak ez du esku-hartzerik izango bezeroak abokatuari zor dizkion ordainsarien zehaztapenaren inguruan; hala ere, profesionalen arteko gatazketan bitartekaritza- edo arbitraje-prozeduretan esku hartu ahalko du¹⁵. Elkargoak ez du kontsultarik onartuko, ez enkargu profesionalaren aurrekorik ez ondorengorik, ordainsari profesionalak zehazteko edo ordainsari jakin batzuk gehiegizkoak edo egokiak iruditzen zaizkion adierazteko.

36. Bestalde, Estatutuek ezartzen dute, halaber, abokatuak bere ordainsariei buruzko informazioa eman beharko diola bezeroari. Alabaina, profesionalak bezeroari bere esku-hartze profesionalagatiko aurrekontu bat aurkeztea bezeroak hala eskatzen duenean baino ez da derrigorrezkoa.

Horren inguruan, LEAk 32. artikuluko laugarren eta bosgarren zenbakiak aldatzea hertsatzen du. Horren arabera, abokatuak bezeroari edozein kasutan emango dio bere esku-hartze profesionalagatiko aurrekontua, bezeroak ere sinatutako enkargu-orri baten bitartez.

37. Kostuak tasatzeko irizpideak ezartzea dela eta, lehenik eta behin argitu behar da arauak «baremo» orientagarriak ez, baizik eta «irizpide» orientagarriak aipatzen dituela. Irizpide orientagarriak «kostuak tasatzeko kontuan hartu beharreko elementuen multzoa» direla definitzen da. **Ezin da «irizpidetzat» hartu kasu konkretu bakoitzari elementu horiek aplikatzen lortutako emaitza kuantitatiboa.** Kasu horretan prezio edo ordainsaritzat hartu behar genuke hori, eta, ondorioz, LDLk debekatutako jardute gisa.

38. Kontuan izan behar da Auzitegi Gorenak kostuen tasazioan datorren ordainsariari buruzko kontuak eskatzen dabilela:¹⁶

«2. Beste aldi batzuetan esana dugun bezala (besteren artean, 2011ko ekainaren 21eko erabakian, 1192/2008 errekurtsioan, eta 2011ko uztailaren 12ko 1948/2008 errekurtsioan), tasazioan datorren ordainsariak neurritzkoa eta arrazoizkoa izan behar du lanbidearen parametroetan, ez bakarrik zenbatekoaren irizpideak erabiliz kalkulatu, baita egokitua ere auzian izaten ari diren baldintzetara, gaiaren konplexutasun gradura, prozesuko posizio berean beste profesional batzuek egiten dituzten esku-hartzeetara eta kostuen tasazioan sartzeko haiek aurkeztutako ordainsarietara».

39. Horren harira esan behar da Estatutuen 32.6 artikulua, enkargu-orria arautzean, honako hau ezartzen duela:

«Enkargu-orrian idatziz jasoko dira inguruabar hauek:

¹⁵ 5/2012 Legea, uztailaren 6koa, Auzi Zibil eta Merkataritzakoetako Bitartekaritzari buruzkoa. 2012ko uztailaren 7ko BOE, 162. zk.

60/2003 Legea, abenduaren 23koa, Arbitrajekoa. 2003ko abenduaren 26ko BOE, 309. zk.

¹⁶ Auzitegi Gorenaren 2017ko martxoaren 15eko erabakia. Arlo zibileko salako 1. sekzioa. ECLI: ES:TS:2017:2259.



(...)

d) Ordainsari profesionalak zehazteko kontuan hartuko diren irizpideak eta, ahal den neurrian, haien kuantifikazio zehatza. Gaiaren ezaugarriak direla-eta, ordainsarien zenbateko zehatza finkatu ezin dela irizten zaionean, inguruabar hori idatziz jasoko da eta, betiere, zenbateko hori zehazteko erabiliko diren oinarriak adieraziko dira.(....)».

Abokatutzaren Euskal Elkargoak edo Kontseiluak kostuak zehazteko orientazio-irizpideak ezartzeak LDLk debekatutako prezioak edo ordainsariak gomendatzea edo ezartzea ekar lezake.

Hori horrela, Elkargoak lehiaren aurkako portaerak saihestu beharko ditu.

40. Bestalde, EPLk 5.o artikuluan ezartzen du lanbide-elkargoen funtzioetako bat dela lanbideko ordainsariak eztabaidagai dituzten administrazio- edo judizio-prozeduren berri ematea.

EPLk Lanbide Elkargoari esleitutako funtzioa bada ere, berori baliatzeak lehiaren aurkako eragina izan dezake; izan ere, ordainsariei buruzko gomendioak finkatzeko debekuak debeku, Elkargoak bere txostenaren bitartez ordainsarien inguruan adierazitako iritzia ordainsariak finkatzera eraman lezake.

Beraz, zeregin hau gauzatzean lehiaren kontrako portaerarik ez izaten saiatu behar du Elkargoak.

3. Elkargoaren baliabideak: Kuotak

41. Elkargoaren estatutuek Elkargoaren baliabideak arautzen dituzte:

41. artikulua. Gobernu Batzarraren eskudantziak.

Abokatutzaren Estatutu Orokorrak eta indarrean dagoen legeriak ezar ditzaketenez gain, Gobernu Batzarrak eskudantzia hauek ditu:

(....)

b) Elkargoan sartzeko eta bertara itzultzeko kuotak eta Elkargoaren karga eta zerbitzuei aurre egiteko ohiko kuotak zehaztea eta, bidezkoa denean, horietatik salbuesteko erabakia hartzea. Batzar Nagusiari ohiz kanpoko kuotak ezartzeko proposamena egitea.

(....)

71. artikulua. Ohiko baliabideak.

Elkargoaren baliabide ekonomikoak ohikoak edo ohiz kanpokoak izan daitezke. Ohiko baliabideak dira Elkargoan sartzeko kuotak eta Gobernu Batzarrak ezarritako ohiko kuotak, baita Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorrean izaera horrekin jasotakoak ere.

72. artikulua. Ohiz kanpoko baliabideak.

Ohikotzat jotzen ez diren guztiak dira ohiz kanpoko baliabideak.



42. Lehiaren Batzorde Nazionalak (LBN) Zerbitzuen Zuzentzarauaren transposizioaren osteko Elkargo Profesionalei buruzko txostenean adierazi du¹⁷,

«(...) ikuspegi ekonomiko batetik, Elkargoan izena emateko edo Elkargoko kide egiteko kuoten zenbatekoak handiak badira, ezin berreskuratuzko kostutzat har daitezke, Elkargoko kide izatea merkatuan lehiatzeko abantaila esanguratsua denean, batez ere. Merkatuan sartzeko oztopo bat da kuoten zenbatekoa handia izatea, eta lehiakide berriek merkatuan sartzeko gogoia galtzea, merkatuan berandu sartzea edo merkatuan ezin sartzea ekar dezake. Horren ondorioz, benetako lehia murriztagoa da, eta gainera, Elkargoko kideek Elkargoan izena emateko edo Elkargoko kide egiteko kuoten kostuak erabiltzaileek eta kontsumitzaileek ordaindu behar izatea eragin dezake».

43. Kontuan izanik Elkargoko kuotek proportzionalak izan behar dutela eta ezin dutela diskriminatu, ez lirateke Elkargoko kideen lanaren ordainsarien arabera kalkulatu beharko, Elkargoak haren kideei ematen dizkieten zerbitzuen arabera baizik.

4. Elkargoaren erreakzioa lanbideko intrusismoa eta lehia desleialeko kasuetan

44. EELren 11.2 artikulua intrusismoa eta arauz kanpoko beste zenbait lanbide-jarduketa erregulatzen ditu; aditzera ematen duenaren arabera, honako hauek hartuko dira lanbideko arauz kanpoko jardueratzat: lanbideko arau deontologikoak urratzea; lanbidean behar den arretaz ez jardutea eta, ondorioz, elkargokidearen zerbitzu profesionalak hitzartzen dituztenen interesei kalte egitea; eta lehia desleiala egitea, Lehia Babesteari buruzko Legean, Lehia Desleialari buruzko Legean eta profesionalen elkargo bakoitzak lehia desleialari buruz emandako jarraibideetan eta Publizitateari buruzko Lege Orokorrean agindutakoaren arabera.

45. Arau horretan ez da inola ere jasotzen elkargoek lanbideko intrusismoa jazarri behar dutenik, ezta lanbidearen interesei eragiten dieten jardun ilegalak edo irregularrak ere. Betebehar hori 18/1997 Legearen 1. artikuluan zehaztutako xede orokorraren barnean sartzen dela pentsatu daiteke, elkargoko kide diren pertsonen interes profesionalak defendatzeari eta elkargoek eskainitako zerbitzuen erabiltzaile eta kontsumitzaileen interesak babesteari buruzko xede orokorrean, alegia.

46. Elkargoaren estatutuek honela arautzen dituzte Gobernu Batzarraren eskudantziak:

41. artikulua. Gobernu Batzarraren eskudantziak.

Abokatutzaren Estatutu Orokorrak eta indarrean dagoen legeriak ezar ditzaketenez gain, Gobernu Batzarrak eskudantzia hauek ditu:

¹⁷ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. Zerbitzuen Zuzentzarauaren transposizioaren ondoren Elkargo Profesionalei buruzko txostena.



(...)

n) Akzio eta jarduketa egokiak egikaritzea intrusismoa eragozteko eta jazartzeko, eta lanbidean legez ezarritako baldintzak eta modua bete gabe aritzen direnei, Elkargoko kideak izan ala ez, lanbidean aritzea eragozteko, jardun profesional irregularra ahalbidetzen duten pertsona natural edo juridikoak baztertu gabe. (...)

47. Elkargoak ez du ahalik bere ekimeneko jarduera independenterik gauzatzeko intrusismoaren eta lehia desleialaren arloan; bere eginkizuna da jokabide horien berri ematea araudia aplikatzeko eskumena duten jurisdikzio-organoei¹⁸. Diziplina-neurriak hartuko dira, baina intrusismoko edo lehia desleialeko jokabideak daudela adierazten dituen ebazpen judizial bat dagoenean soil-soilik.

5. Elkargoak elkargokideei lehia egitea

48. Lehia Desleialaren Legearen 15. artikulua ezartzen du «arauak urratzea» lehia desleiala izan daitekeela¹⁹.

49. Bestalde, EELren 24. artikulua j. letran ezartzen duenez, eskumena duten organo eta erakundeek eskatzen dizkieten edo beren ekimenez lantzen dituzten txostenak emango dituzte.

50. Estatutuek honako hau jasotzen dute:

4. artikulua. Elkargoaren funtzioak.

Hauetara Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren funtzioak, bere lurralde-esparruan:

(...)

k) Botere judizialarekin eta gainerako botere publikoekin lankidetzan jardutea haien arau erregulatzailerei jarraikiz dagozkien organoetako partaidetzaren bitartez. Orobat, azterketak egitea, txostenak jaulkitzea, estatistikak prestatzea eta bere xedeekin erlazionatutako beste zenbait jardura egitea, eskatzen dizkiotenean edo beren ekimenez erabakitzen dutenean. (...)

71. artikulua. Ohiko baliabideak.

Elkargoaren baliabide ekonomikoak ohikoak edo ohiz kanpokoak izan daitezke. Ohiko baliabideak dira Elkargoan sartzeko kuotak eta Gobernu Batzarrak ezarritako ohiko kuotak, baita Espainiako Abokatzaren Estatutu Orokorrean izaera horrekin jasotakoak ere.

¹⁸ Ikus LEAk Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuaren Kontseiluaren Estatutuei buruzko txostenaren 17. zenbakia. Hemen eskuratu daiteke:

http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/adjuntos/Informe%20Consejo%20Graduados%20Sociales.pdf.

3/1991 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Lehia Desleialari buruzkoa. 1991ko azaroaren 11ko BOE, 10. zk.



51. Estatutueta 4. artikulua txostenak jaulkitzea eta bere xedeekin erlacionatutako beste zenbait jardura egitea aurreikusten du Elkargoaren beste zenbait funtzioaren artean. Bestalde, Estatutuen 71. artikulua, Elkargoaren ohiko baliabideen artean, Elkargoan sartzeko kuotak eta Gobernu Batzarrak ezarritako ohiko kuotak ezartzen ditu, baita Espainiako Abokatzaren Estatutu Orokorrean izaera horrekin jasotakoak ere. Aipatutako Estatutu Orokor horrek honako hauek ezartzen ditu ohiko baliabide gisa 63.1.d artikuluan:

«Elkargo bakoitzeko gobernu-batzarrak edozein gairen inguruko irizpenak, ebazpenak, txostenak edo kontsultak jaulkitzeagatik ezarritako eskubideak, barne hartuta ordainsariei buruzkoak, eskaera judiziala edo estrajudiziala dela medio, baita Elkargoaren beste zerbitzu-prestazio batzuei buruzkoak ere».

Baldin eta Elkargoak egindako eta izaera profesionaleko lanak badira, elkargokideei dagozkien lan gisa hartu beharko dira, Elkargoak ez baitu horiek gauzatzeko titulurik. Bestela, bere elkargokideekin lehia arituko litzateke Elkargoa. Bi ondorio izan ditzake Elkargoak abokatuaren berezko lan profesionalak egiteak:

- Elkargoa eragile ekonomiko bat izatea, zerbitzuak emateko erreferentziazko eskaintzailea; horrenbestez, profesionalek merkatuan zuzenean parte hartu ahal izateari kalte egin liezaioke.
- Eragile batek (Elkargoak) lehentasuna izatea Elkargoko kideen kaltetan, eta hori ez da sustagarria kideentzat. Sistema horren eraginez, Elkargoak «beretzat har» lezake negozioa, zerbitzu jakin batzuk Elkargo barnean banatuta.

Horrenbestez, 71. artikulua aldatu eta honako hau gehitzea gomendatzen da:

«Pertzepzio horiek ez dira, inola ere, Elkargoak eskainitako abokatu-zerbitzuetatik etorriko».

6. Elkargoa eta abokatuak lehiaren arloko araudiaren mende egotea

52. Lehen esan dugun bezala, EPLren 2.1. artikulua ezartzen duenez, lehia askeko araubidean egingo dira elkargoko lanbideak, eta Lehiaren Aldeko Legeari eta Lehia Desleialaren Legeari lotuta egongo dira zerbitzuen eskaintzari eta horien prezioak ezartzeari dagokienez.

Hori dela eta, komeni da Estatutueta berriaz aipa dadila abokatzaren jarduna profesionalen arteko lehia-araubidean gauzatzeko dela. Horrela, gomendatzen da honako hau txertatzea Elkargoaren estatutueta:

«Lehia askeko erregimenean egingo da abokatzaren lanbidea, eta Lehiaren Aldeko Legeari lotuta egongo da zerbitzuen eskaintzari eta horien prezioak ezartzeari dagokienez».

53. Bestalde, Elkargoak lehiaren defentsari buruzko araudia bete beharko du, bai estatutuak eta elkargoko beste arau batzuk idaztean (hala nola barne-araubideko erregelamenduak, ezarritako prozedurak, eta arau deontologikoak), bai eta jardunean aritzean ere.



Hori dela eta, estatutuen testua kontuan izan gabe, elkargoak ezin du hartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, ezta horrelako betebeharrak edo eskakizunik ere, lehia defendatzeko legediaren arau-haustea izan daitezkeelako²⁰.

IV. ONDORIOAK:

Lehenengoa. Gomendatzen dugu estatutuetan berariaz aipatzea abokatutzaren lanbidearen jarduna profesionalen arteko lehia askearen araubidean gauzatuko dela.

Bigarrena. Elkargoak ezin du hartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, ezta horrelako betebeharrak edo eskakizunik ere, lehia defendatzeko legediaren arau-haustea izan daitezkeelako. Akordio, erabaki edo gomendio guztiek LDL errespetatu behar dute.

Era berean, elkargoaren jardunak elkargoko kideen interes korporatiboen defentsa soilaz harago joan behar du; kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak ere babestu behar ditu, gizartearen interes eta premia orokorrekin bat etorriz.

Hirugarrena. Beharrezkoa da estatutuetako artikulua hauek **aldatzea**:

- 25.a (Abokatutzan aritzeko ezgaitasuna)
- 26.a (Bateraezintasunak)
- 32.a (Ordainsari profesionalak)
- 71.a (Ohiko baliabideak)

Artikulu hau **ezabatu** behar da:

- 18.4.a) eta b) (Elkargora nahitaez bildu beharra)